



**Arartekoaren 2014R-1803-13 ebazpena, 2014ko uztailaren 14koa. Horren bidez, Oñatiko Udalarari eskatzen zaio zirkulazioaren araudia urratzearen zioz hasitako zehapen-prozedura artxibatu eta kexagileari itzul diezaion zehapenaren zioz ordaindutako zenbatekoa (... zenbakidun zehapen-prozedura).**

### Aurrekariak

1. ...(e)k Arartekoarengana jo zuen Oñatiko Udalak berari jarritako zehapena baliorik gabe utz zezan. Kexagileak adierazitakoaren arabera, Udalak zehapena jarri zion udaltzain batek beraren autoaren aurka egindako salaketa baten ondorioz. Ibilgailua, (...) matrikuladuna, *"galtzadaren zati bat okupatzen zuela aparkatuta zegoen, bihurgunean bertan, beste ibilgailu batzuen ikuspena larriki oztopatuta"* (... zenbakidun zehapen-prozedura).

Kexagilea ez zegoen ados udaltzainak salaketan jasotako egintzaren deskribapenarekin. Autoa gaizki aparkatuta zegoela aitortu arren, kexagilearen arabera, urraketa arintzat jo behar zen, bere esanetan, automobilak ez zuelako galtzadaren zati bat okupatzen, bihurgunean bertan aparkatuta ez zegoelako eta ez zuelako larriki oztopatzen beste ibilgailu batzuen ikuspena. Erakunde honi adierazitakoaren arabera, ibilgailuaren atzealdeko eskuineko gurrupila ozta-ozta ateratzen zen galtzada zedarrantzen duen marrantik; horregatik, bere iritziz, ezin da esan autoak galtzadaren zati bat hartzen zuenik, ez eta autoa leku arriskutsuren batean aparkatuta zegoenik edo zirkulazioa larriki oztopatzen zuenik ere. Kexagilearen iritziz, prozeduran aurkeztutako argazkiek ziurtatzen zuten esandako guztia.

Gainera, interesdunaren iritziz, ibilgailua ahal zen modurik egokienean aparkatuta zegoen zirkulazioari kalterik ez egiteko. Kontuan hartu behar da egun horretan Pazko-igandeko meza eman zela Arantzazuko santutegian (leku horren inguruan gertatu zen egintza), eta auto ugari hurbildu zirenez gero, ospakizun horretarako egokitu ziren aparkatzeko plazak ez ziren nahikoak izan horrenbeste auto hartzeko.

Halaber, kexagilea ez zegoen ados Oñatiko Udalak urraketaren frogabide gisa bidalitako argazkiarekin; izan ere, kexagilearen esanetan, argazkiak errealitatea desitxuratzen zuen eta itxurazko bihurgune bat erakusten zuen, baina egiatan, interesdunaren arabera, ez zegoen halako bihurgunerik.

Beste alde batetik, interesdunaren ustez, salaketa egindako udaltzainak ez zituen datu batzuk egoki jaso salaketan, besteak beste, ibilgailuaren kolorea, urratutako araua, urraketa gertatu zeneko ordua eta urraketa egindako lekua.

Halaber, interesdunak adierazi zuen berari jakinarazitako salaketak jasotzen zuen salatutako egitatea ez zettorrela bat udaltzainak salatutakoarekin eta,



hortaz, interesdunaren iritziz, irregulartasun horrek jarduketa baliogabetu behar zuen.

Bestetik, kexagilea kexu zen salaketaren jakinarazpena heldu zitzaiola borondatezko ordainketa murriztua egiteko epea amaitzen zen egunean bertan, jakinarazpenak adierazten zuen bezala, eta jakinarazpena ez zela bidali legez ezarritako epean. Gainera, kexatu zen urraketaren salaketa jaso zuelako agiriak ordainketa burutzeko ematen zuen epea bete zedin zazpi egun besterik ez zirela falta.

Azkenik, ez zegoen konforme berari salaketa jarritako udaltzainak ez zituelako salatu beste ibilgailu batzuen egoera, bere iritziz, ibilgailu horiek galtzadan zeudelako, interesdunak bidalitako argazkietan ikusten den moduan.

Interesdunak adierazitakoaren arabera, inguruabar horiek guztiak alegatu zituen zehapen-prozeduran, eta argazki batzuk aurkeztu zituen gertaerari buruzko bertsioa egiaztatzeko. Era berean, udalak bidalitako argazkiaren kopia handitua aurkeztu zuen, bere iritziz, bihurgunea hasten zen lekua marra horizontal batez adierazita argazkian bertan. Interesdunaren argibideen arabera, bihurgunearen abialekua ibilgailua aparkatuta zegoeneko tokiaren atzetik zegoen.

Interesdunak esandakoaren arabera, zehazpena bertan behera uzteko eskatu zuen, aipatutako alegazio eta frogetan oinarriturik, baina Oñatiko Udalak batzuk eta besteak gaitzetsi zituen, balioetsi gabe eta gaitzespenaren arrazoi zehatzak azaldu gabe. Era berean, interesdunak jakinarazi zigun Oñatiko Udalak ez ziola adierazi zergatik uste zuen administrazioak interesdunak aurkeztutako alegazio eta frogak ezin ziotela eragin zehazpenaren baliotasunari.

2. Kexaren izapidetzea onartu eta aztertu ondoren, Oñatiko Udalera jo genuen kexagileak adierazitako auziei buruzko argibideak eman ziezazkigun eta zehapen-prozedurari zegokion administrazio-espedientearen kopia helarazteko.

Gure eskabideari erantzuteko, Oñatiko Udalak bidalitako informazioan agertzen zen kexagileak salaketa jarritako egunean bertan jakinarazi ziola administrazioari berak ez zuela salatutako autoa gidatzen, bere aitak baizik, eta aitaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia erantsi zion idazkiari.

Informazio horrek agerian uzten du Oñatiko Udalak kexagilearen aurkako zehapen-prozedurari ekin ziola, salatutako ibilgailuaren titularra zen aldetik, gidaria nor zen identifikatu izan ez balitz bezala.

Gainera, udalak emandako informazioan onartzen zen kexagilea ez zela gidaria, egindako identifikazioan oinarrituta.

Argibide horiek jakinda, geroago azalduko ditugun arrazoiak direla eta, gure iritziz ezin zaio erantzukizunik leporatu kexagileari beraren aurkako salaketan



eta, beraz, ezarritako zehapena bertan behera utzi beharko litzateke horregatik, hain zuzen ere.

Irizpen hori helarazi genion Oñatiko Udalari, aipatutako irizpidearen arabera jokatzeko prest ote zeuden esateko.

Beste alde batetik, Oñatiko Udalak bidalitako informazioak ez zekarren zehapen-prozedurari zegokion administrazio-espeditente osoa, eta ez zituen jorratzen geuk azaldutako gai batzuk. Hori dela eta, beste argibide osagarri batzuk eskatu genizkion aipatutako administrazioari, interesdunak mahairatutako auziei erantzun arrazoitua eta egiaztatua eman ahal izateko.

3. Geuk eskatutako informazio osagarria eman zigun Oñatiko Udalak, geroago azalduko ditugun salbuespen batzuk izan ezik, baina ez zuen irizpenik eman kexagilearen erantzukizun ezari buruz bere aurkako salaketan; beste alde batetik, ez zigun jakinarazi prest ote zegoen zehapena baliogabetzeko arrazoi horren zioz.

### Gogoetak

1. Martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretuak onartzeko duen Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko legearen testu artikulatuak arlo honetako urraketen gaineko erantzukizuna egotzen dio salatutako ibilgailuaren titularrak identifikatzen duen gidariari, betiere salaketa jartzen den unean bertan ibilgailua gidatzen zuen pertsona identifikatu ez eta ibilgailuak ohiko gidaria zein den adierazita ez badauka [69.1.d artikulua]).

Aurrekarietan azaldu dugun bezala, Oñatiko Udalak bidalitako informazioan agertzen zenez, kexagileak salaketa egindako egunean bertan jakinarazi zion administrazioari berak ez zuela salatutako autoa gidatzen, bere aitak baizik, eta aitaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia erantsi zion idazkiari. Era berean, informazioan ondorioztatzen da Oñatiko Udalak prozedura izapidetzen jarraitu zuela interesdunaren aurka, ibilgailuaren titularra zen aldetik, gidaria nor zen identifikatu izan ez balitz bezala.

Gainera, Oñatiko Udalak emandako informazioan onartzen zen kexagilea ez zela gidaria, egindako identifikazioan oinarrituta.

Informazio horretan oinarrituta, erakunde honen iritziz, kexaren egileak gidaria nor zen identifikatu eta salaketa jakinarazteko datu nahikoak eman ondoren, zehapen-prozedura, ezinbestean, identifikatutako gidariaren aurka bideratu behar zen, ez kexagilearen aurka, aipatutako legezko araubidea aplikatzeko helburuz.



Hala eta guztiz ere, Oñatiko Udalak ez zuen horrela jokatu eta, kexagilea salatutako ibilgailuaren gidaria ez zela onartu arren, beraren aurka bideratu zuen prozeduraren izapidetzea, ibilgailuaren titularra zen aldetik, eta ustezko urraketaren erantzukizuna egotzi zion.

Gure ikuspuntutik, udalaren jokabideak urraketaren erantzukizuna esleitzeko arauak hausten ditu eta horrek bete-betean eragiten dio izapidetutako prozeduraren baliotasunari.

2. Aurrekarietan azaldu den moduan, kexagilea ez zen ados egon udaltzainak salatutako egitatearekin eta zehapena ekarri zion urraketaren frogekin. Gogora ekarriko dugu, bere esanetan, ibilgailua ez zegoela galtzadan sartuta, ez zegoela bihurgunean bertan eta ez ziola larriki eragiten beste ibilgailu batzuen ikuspenari. Era berean, kexagileak adierazi zuen Oñatiko Udalak bidalitako argazkiak errealitatea desitxuratzen zuela, eta argazki hori ez zela atera salaketa egindako unean, ibilgailuaren gidariak esandakoaren arabera, ordu horretan auto ugari zeudelako bertan; argazkiak erakutsitakoaren arabera, berriz, ez zegoen ibilgailurik salatutakoaren atzetik. Gidariaren esanetan, horixe zen egoera autoa aparkatu zuenean, 12:05 eta 12:10 artean. Bere iritziz, ezinezkoa da 12:40an, hau da, salaketak dioenaren arabera, agiria egin zen unean, autorik ez egotea salatutakoaren ibilgailuaren atzetik, eta auto ugari egotea 13:05ean, hots, deskargua egiteko aurkeztu zituen argazkiak ateratako orduan. Gainera, kexagilearen iritziz, argazkiok egiaztatzen zuten bere bertsioa egitatean gainean.

Udalak esandakoaren arabera, berriz, ibilgailua galtzadaren zati batean aparkatuta zegoen, bihurgunean bertan, eta larriki eragozten zuen zirkulazioa. Egitate hori behar bezala egiaztatu da udaltzainek hartutako argazkien bitartez, salaketa egin zen unean, bai eta, udaltzain salatzailleak eta patruilako lankideak salaketa-egunean bertan egindako txosten osagarriaren bitartez.

Beste alde batetik, Oñatiko Udalak azaldu zigun Udaltzaingoaren argazkiak erakusten duen ibilgailuaren kokapena eta kexagilearen argazkietan ikusten den kokapena ez dela berdina; hori dela eta, pentsatzekoa da salaketa jaso zueneko lekutik mugitu zela ibilgailua eta argazkiak autoa mugitu ondoren atera zirela.

Oñatiko Udalak bidalitako administrazio-espeditentean, udaltzainek egindako argazkiak jasota daude. Argazkietan ikusten denez, ibilgailuaren atzealdeko eskuineko gorpila galtzada zedarrizten duen luzetarako marratik bereiz dago eta, beraz, ibilgailua galtzadaren zati batean sartuta dago.

Interesdunak bidalitako argazkietan, ordea, ibilgailuaren atzealdeko eskuineko gorpila luzetarako marraren gain-gainean dago, berak esan moduan. Argazki horiek ere administrazio-espeditentean jasota daude. Bestalde, badirudi Udaltzaingoak egindako argazkietan baino atzerago dagoela ibilgailua argazki horietan.



Era berean, udaltzainek ateratako argazkietan, ibilgailua bihurgunean bertan dagoela ikusten da.

Udaltzain salatzaileak eta patruilako lankideak salaketa-egunean bertan egindako txostenean, Oñatiko Udalak bidalitako administrazio-espeditentean jasota dagoen legez, agenteek azaldu zuten egun horretako 12:30ean, Arantzazuko santutegitik Oñatirantz zihoazela, interesdunaren ibilgailua bihurgunean bertan aparkatuta zegoela, eta udaltzainak zihoazen erreieren zati bat okupatzen zuela; hori dela eta, gidariaren ikuspena oztopatu eta beste erreirantz jo behar izan zuten, baina une horretan, autobus bat zihoan beste erreitik eta ia-ia jo zuten. Udaltzainek ibilgailuari ateratako argazki bat jasotzen da txostenean eta bertan azaltzen da salaketa egindako orduan, nahikoa plaza libre zeudela Arantzazuko irteeran dagoen hiru solairuko aparkalekuan.

Aipatutako txostenaren arabera, udaltzainak salatu zuen beste ibilgailu batzuen ikuspenaren oztopatze larria berak eta patruilako lankideak egiaztatu zuten, Arantzazuko santutegitik Oñatirantz zihoazela. Kexagileak auzi horri buruz egindako alegazioak kontrako noranzkoan doan gidari baten ikuspegitik eginda daude, hau da, Oñatitik Arantzazuko santutegira doan gidari baten ikuspegitik eta, hortaz, gure iritziz, interesdunaren alegiazkotasuna oso mugatua da udaltzainek egindako balorazioari eragiteko.

Beste alde batetik, administrazio espeditentean ageri denez, kexagileak zehapen-prozeduran frogabide gisa aurkeztutako argazkiak 13:05ean atera zirela adierazi zuen, hau da, salaketa egin eta hogeita bost minutu geroago, eta horrek ez dauka balio handirik salaketa jarri zen uneko egoera berdintsua zela frogatzeko, udaltzainen adierazpenek eta salaketa egin zeneko unean ateratako argazkiek beste egoera bat erakusten dutela aintzat hartuta.

Administrazio-espeditentean jasota daude, halaber, udaltzainek ibilgailuari ateratako argazkiak salaketa egin zeneko unean. Argazki horietako bat kexagilearen alegazioak gaitzesteko idazkian txertatu zen eta idazkiaren beraren formatura egokitu zen. Horrez gain, idazkiak jakinarazten zion interesdunari administrazio-espeditentea bere esku zegoela Udaltzaingoaren bulegoetan.

Gure iritziz, ez da ulergarria argazkia itxuraldatu behar izatea kexagilearen alegazioei erantzuteko idazkian erantsi zelako, idazkiaren beraren formatura egokitzeko helburuz. Nolanahi ere, urraketaren frogabide gisa aintzat hartu beharreko argazkiak udaltzainek salaketa egin zuteneko unean ateratakoak dira. Eta argazki horiek, arestian esan dugun bezala, espeditentean jasota daude eta interesdunak ikustea izan du.

Gure iritziz, kexagileak adierazi dizkigun arrazoiak ez dira nahikoak egiaztatu ahal izateko udaltzainek egindako argazkiak ez zirela atera salaketan



adierazitako orduan, interesdunak dioen moduan; izan ere, ordu horretan bere ibilgailuaren atzetik ibilgailu gehiago aparkatuta egon behar zirelako hipotesia ere ez dago egiaztatuta. Hala, gure aburuz, ezin da ondorioztatu 13:05ean ibilgailu gehiago zeudelako, 12:40an ere ibilgailu gehiago egon behar zirenik.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta udaltzainek ateratako argazkia salaketa egin zeneko unean bertan egin ez zela edo argazkia desitxuratuta dagoela ulertzeko arrastorik ez daukagunez, esan beharra daukagu ez dugula inolako oinarririk udaltzainen jarduketa zalantzan jartzeko, emandako arrazoibideak aztertuta.

Kexaren alderdi hori aztertzerakoan, aintzat hartu behar da trafikoaren zaintzaz arduratzen diren agintaritzako agenteen salaketei legez esleitzen zaiela egiazkotasun-presuntzioa, agenteek eurek zuzenean eta aurrez aurre ikusi dituzten salatutako egitatei dagokienez (Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko testu artikulatuaren 75. artikulua eta otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 14. artikulua).

Gure iritziz, garrantzikoa da azpimarratzea justizia-epaitegiek lehen aipatutako legezko manuak interpretatu eta ulertzen dutela agenteek egindako salaketa, izaera orokorrean, egozketa-froga nahikoa dela salaketan jasotako egitateak egiaztatu eta, hortaz, urraketa egotzitako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa ahultzeko. Epaitegien irizpenez, salaketek legez esleituta duten egiazkotasun-presuntzioari jarraiki, lehen azaldutako baldintzetan, interesdunaren esku geratzen da agenteak salaketa-agirian azaldu duen moduan ez, beste modu batean gertatu zirela salatutako egitateak.

Ezin dugu albo batera utzi kexagileak aitortu duela bera ez zela egon egitateak gertatu zirenean; beraz, ez dago zalantzarik gertaera ez zuela ikusi, eta horrek ahultzen du bere adierazpenen frogabidearen balioa.

Esan dugun guztiagatik, ezin dugu gaitzetsi Oñatiko Udalak frogatutzat ematea salatutako egitateak, ezta egitateak ez direla frogatu, kexaren egileak adierazten zuen bezala.

3. Oñatiko Udalak azaldu digu kexagilearen ibilgailuaren aurrean zeuden ibilgailuak ez zeudela galtzadaren barruan, bai kexagilearena, eta hortaz, besteei ez zirelako salaketa jarri. Era berean, Oñatiko Udalak adierazi digu salaketa egin zeneko unean bertan egon zen auto bakarra kexagilearena zela eta berak aipatzen dituen ibilgailuak, antza denez, udaltzainek alde egin eta gero aparkatuko zuten.

Udaltzainek ateratako argazki batean, hain zuzen ere, ikusten da interesdunaren ibilgailuaren alboan aparkatuta zeuden ibilgailuak —guzti-guztiak horren aurretik— ez zirelako galtzadan sartzen.



Kexagileak aurkeztutako argazkietan ikusten da galtzadan sartuta zeuden ibilgailuak bazirela, baina lehen esan dugun moduan, badirudi argazki horiek ez zirela atera salaketa egin zen unean.

Hori dela eta, arrazoi horregatik ere ezin dugu zalantzan jarri udaltzainen jarduna.

4. Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onetsitako Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 91.2 artikulua urraketa larritzat jotzen du leku arriskutsuetan aparkatzea edo oinezkoen, ibilgailuen eta animalien zirkulazioa larriki oztopatzen duten lekuetan aparkatzea [91.2.m) artikulua], Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko testu artikulatuak egindako tipifikazioari jarraiki [65.4.d) artikulua]. Artikulu hori urratzeagatik jarri zioten salaketa interesdunaren ibilgailuari.

Testu artikulatuak berak dioenari jarraiki, urratze larriei dagokien isuna 200 eurokoa da (67.1 artikulua).

Legearen aplikazioaren erregimenari begiratuta, derrigorrezkoa zen Oñatiko Udalak larritzat hartzea udaltzainak salatutako ibilgailuaren urraketa eta, horren ondorioz, urraketa horri zegokion isunaren zenbatekoa 200 eurokoa izatea.

Hori dela eta, arrazoi horregatik ere ezin dugu zalantzan jarri udaltzainen jarduna.

5. Interesdunaren arabera, udaltzain salatzaileak salaketa-orria betetzean eta Oñatiko Udalak zehapen-prozedura izapidetzean egindako usteko irregulartasunak aztertu baino lehen, esan behar dugu prozedurazko irregulartasun guztiek ez dituztela baliogabetzen agenteen jarduketa. Hori gertatzeko, behar-beharrezkoa da irregulartasunaren garrantziak benetako babesgabetasun-egoeran utzi behar izatea interesduna, egitateak ezeztatu eta horien aurka jotzeko aukerari dagokionez. Horregatik, auziaren azterketak osoko prozedurari begiratu behar dio, bereziki, interesdunari egozten zaizkion egitateak, interesdunak eskura izan dituen defentsa-baliabideak, erabilitako arrazoibideen garrantzia espedientearen azken ebazpenari lotuta, eta arrazoibide horien gaitasuna egotzitako ekintzak indargabetzeko.

Beraz, nahitaezkoa da ikuspegi hori kontuan hartzea kexagileak bere kexa oinarritzeko darabiltzan irregulartasunak aztertzerakoan. Horrela ez bestela zehaztea izango dugu irregulartasun horiek, egiaztatuz gero, bideratutako jarduketan baliogabetasuna ekar lezaketen.

6. Trafiko araudiak dioenari jarraiki, agintaritzako agenteek egiten dituzten salaketek, unean bertan jakinarazten ez badira, besteak beste, ondoko datuak jaso behar dituzte: ustezko urraketa egin deneko ibilgailuaren identifikazioa eta egitatearen azalpen laburra, lekua edo tartea, data eta ordua jasota. Araudi



berari jarraiki, unean bertan jakinarazten diren salaketek, gainera, egindako urraketaren berri eman behar dute (Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko testu artikulatuaren 74. artikulua).

Aurrekarietan adierazi dugun bezala, kexagilearen ustez, kexaren xede izan den zehapena ekarri zuen salaketa ez zen behar bezala bete. Hain zuzen ere, adierazi zigun ibilgailuaren kolorea ez zela grisa, salaketa-agirian jasota zegoen bezala, ezpada, marroia. Era berean, adierazi zigun salaketak ez zuela urratutako artikulua jasotzen, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onesten duen Errege Dekretuaren zenbakia baizik. Halaber, zalantzan jarri zuen salaketa-agiria zein ordutan bete zen, agirian bertan ageri dena kontuan hartuta, arestian azertu ditugun arrazoietan funtsatuta. Bestalde, adierazi zigun urraketaren lekua gaizki identifikatuta zegoela.

Oñatiko Udalak eskuataratu digun agiri horren kopian ikusten denez, udaltzainak jaso zuen ibilgailuaren kolorea grisa zela eta urratutako manua 1428/03 zela, hau da, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onesten duen Errege Dekretuaren zenbakia jaso zuen. Azkenik, udaltzainak jaso zuen egitateak 12:40an gertatu zirela, "Arantzazu Auzoa (Topagune)" izeneko lekuan.

Oñatiko Udalak adierazi digu zehapen-prozedurak eskatzen dituen datu guztiak agertzen direla salaketa-orrian. Hala eta guztiz ere, ez digu argitu ibilgailuaren benetako kolorearen eta salaketan ageri den kolorearen arteko desberdintasuna, interesdunak zioen moduan.

Oñatiko Udalak gai hori argitu behar zuelakoan gaude, baina, aldi berean, esan beharra dago ibilgailuaren kolorea eta urratutako manua salaketa-agirian gaizki jasotzeak ezin diola inola ere agiriaren baliotasunari eragin; izan ere, lehen esan dugun moduan, datu horiek jasotzea ez da derrigorrezkoa salaketa jakinarazten ez bada urraketa gertatzen den unean bertan, aztergai darabilgun kasuan jazo zen bezala. Gainera, kexagileak berak aitortu zuen bere ibilgailua aparkatuta egon zela egitateak gertatu ziren lekuan, eta ez du zalantzan jarri udaltzainek ateratako argazkietan ateratzen den autoa berarena ez denik. Aitorpen horrek balioa kentzen die akatsei, bai eta, egokia izan balitz, urraketa gertatu zeneko lekua salaketa-agirian identifikatzean gertatuko zirenei, akats horiek ez ziotelako eragotzi interesdunari ibilgailua non zegoen, ezta salatutako autoa bere ibilgailua zela.

Orduari dagokionez, ustezko akatsaren gainean esanda daukagu ez dugula oinarririk salaketa ordu horretan egin ez zela egiaztatzeko.

Gure ustez, garrantzizkoa da azpimarratzea interesdunari jakinarazi zitzaion salaketak bai jasotzen duela urratutako manua, Oñatiko Udalak eskuataratutako zehapen-espeditenteak jaso bezala.





Lehen aipatu ditugun akatsek salaketaren baliotasunari ezin eragin diezaioketela ulertu arren, agirian jasotako manuairen urraketaren gaineko aipamena gaizki egin zela egiaztatuta, gogorazi behar diogu Oñatiko Udalari udaltzainek erabateko arduraz bete behar dituztela salaketa-agiriak, aipamen osagabeak, nahasgarriak edo datu okerrak jasotzen dituztenak saihesteko, hala nola, salatutako ibilgailuaren kolorearena.

7. Aurrekarietan adierazi dugun moduan, interesduna kexu zen salaketak jasotzen zuen egitatea, berari jakinarazitakoa, ez zettorrela bat udaltzainak salatutako egitatearekin. Izan ere, udaltzainak salatutako egitateaz gain, salaketak *“ibilgailua gelditzean, behar bezala geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati zirkulazioan sartzea eragozte”* jasotzen zuen. Interesdunaren iritziz, gertaera horri otutako irregulartasunak jarduketa indargabetzen zuen.

Oñatiko Udalak ondokoan oinarrituta arrazoitu zuen jarduteko modu hori: Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra onesten duen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren 91.2 artikuluan bi urraketak tipifikatzen ditu eta artikulua horren urraketagatik salatu zuten udaltzainek kexagilea. Hala, zehapen-prozeduren kudeaketa-sisteman manua aipatu behar denez, artikulatuak dakarren testu osoa idatzi behar da.

Gure iritziz, azalpen hori ez dator bat aipatutako artikulua hitzez hitzezko edukiarekin. Bada, manu horrek hamahiru aparkatze tipifikatzen ditu urraketa larritzat, ibilgailuak leku arriskutsuetan aparkatuta daudelako edo zirkulazioari kalte larria eragiten diotelako, ez bakarrik salaketak jasotzen dituen biak.

Dena dela, kexagileari ezarritako zehapena sorrarazi zuen egitatea argi eta garbi deskribatzen da udaltzainak betetako salaketa-agirian eta interesdunak horren berri izan zuen. Gure iritziz, horixe da garrantzizkoena. Horregatik, kexagileari etxean jakinarazitako salaketak zeukan akatsak ere ez zuen izango nahikoa garrantzirik, gure ustez, agiriaren baliotasunari eragiteko.

Nolanahi ere, pentsatzen dugu Oñatiko Udalak darabilen kudeaketa-sistema berrikusi beharko zuela edo, bestela, zuzenketa egokiak eskuz idatzi, interesdunari bidalitako jakinarazpenetan deskribatzen den egitatea eta salatutakoa guztiz bat etor daitezen.

8. Era berean, kexagilea kexu zen salaketaren jakinarazpena jaso zuelako, agiriak berak zioenaren arabera, borondatezko ordainketa murriztua egiteko epea amaitzen zen egunean bertan.

Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko testu artikulatuak, kexaren xede diren egitateak gertatu zirenean indarrean zegoen idazketari jarraiki, hamabost eguneko epea ezartzen zuen salaketa jakinarazten zen egunetik zenbatzen hasita, salatutako pertsonak borondatezko ordainketa egin ahal izateko isunaren murrizketa baliatuta (79. artikulua).



Oñatiko Udalak bidali zigun informazioa aztertuta eta zehapen-prozeduraren administrazio-espeditentea ikusita, salaketa 2013ko apirilaren 24an jakinarazi zitzaion kexagileari eta agiri horretan adierazitakoari jarraiki, isunaren zenbateko murriztua borondatez ordaintzeko azken eguna maiatzaren 24a izan zen; beraz, interesdunak 15 egunetik gorako epea izan zuen ordainketa murriztua egiteko, hau da, une horretan legez ezarritako zegoen epea baino luzeagoa.

Aurreko aintzat hartuta, ez dugu antzeman jardun horretan kexagileak salatzen zuen irregulartasuna.

9. Gainera, kexagilea kexatu zen urraketaren salaketa jaso zuelako agiriak ordainketa burutzeko ematen zuen epea bete zedin zazpi egun besterik ez zirela falta.

Oñatiko Udalak bidali zigun informazioa aztertuta eta zehapen-prozeduraren administrazio-espeditentea ikusita, interesdunak 2013ko ekainaren 8an ordaindu zuen zehapenaren zenbatekoa, hau da, borondatezko ordainketa egiteko salaketan adierazita zegoen azken egunean.

Trafikoari buruzko araudiak ezartzen duenez, salatutako pertsonak alegaziorik aurkezten ez badu ezarritako apearen barruan eta isunaren zenbatekoa epe horretan ordaintzen ez badu, salaketak prozeduraren ebazpen-egintzaren ondorea dauka eta zehapena betearaz daiteke salaketa jakinarazten denetik hogeita hamar egunera. Alegazioak aurkezten badira, ordea, organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena helarazi behar dio organo zehatzaileari, instrukzio-aldia amaitutakoan, azkenak bidezko ebazpena eman dezan. Azken kasuan, zehapen-ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta zehapena interesdunari jakinarazten den egunaren hurrengotik hasita betearaz daiteke (Trafikoari, Ibilgailu motordunen zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko testu artikulatuaren 81. artikulua).

Oñatiko Udalak emandako informazioan oinarrituta, ondorioztatu dugu udalak ez zuela zehapen-ebazpenik eman, interesdunak bere borondatez ordaindu zuelako zehapena borondatezko ordainketa egiteko salaketak adierazten zuen epearen azken egunean. Oñatiko Udalak bidalitako administrazio-espeditentean ere ez dago ebazpen hori jasota.

Kexagilearen alegazioak gaitzesten zituen idazkia 2013ko ekainaren 1ean jaso zuela kontuan hartuta eta zehapen-ebazpenik eman ez zela ikusita, kexagileak dioenean zehapena jakinarazi zitzaizola hura betearazteko zazpi egun falta zirela, gure iritziz, lehen aipatutako idazkiaz ari da.

Lehen azaldu dugun legezko aplikazioaren erregimenari jarraiki, gure iritziz, salaketak bakarrik ezar dezake borondatezko ordainketa-epea alegaziorik



aurkeztu ez den kasuan; izan ere, alegazioak aurkeztuz gero, ordainketa bakarrik egin daiteke zehapen-ebazpena eman ondoren.

Arazoi horregatik, gure iritziz, Oñatiko Udalak interesdunari jakinarazitako salaketan azken eguna ezarri zuenean salaketa borondatez ordaintzeko, zehaztu behar izan zuen epe hori bakarrik aplikagarria zela alegaziorik aurkeztu ezean. Horrela eginez gero, agiri horretan jasotako informazioak ez zion nahasterik sorraraziko interesdunari, alegaziorik aurkeztuz gero, ordainketa-epea noiz artekoa zen jakiteko. Gure ustez, hori gertatu zen.

Era berean, interesdunak zehapena ordaindu izanak salaketak adierazitako epearen barruan ezin izango zukeen bidezkotu zehapen-ebazpena ez ematea; izan ere, lehen azaldu dugun moduan, interesdunak alegazioak aurkeztu zituen. Aurreko guztiagatik, ulertzen dugu prozedura amaitu gabe dagoela eta kexagileak zehapena ordaindu zuenean ebazpena eman barik zegoela eta, beraz, gure iritziz, egindako ordainketak ez luke beharrezko estaldurarik izango zehapenari dagokionez.

Horregatik, Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, ondoko gomendioa ematen diogu Oñatiko Udalari:

### GOMENDIOA

Udal horretako udaltzain batek kexagilearen ibilgailuaren aurka *"galtzadaren zati bat okupatzen zuela aparkatuta zegoelako, bihurgunean bertan, beste ibilgailu batzuen ikuspena larriki oztopatuta"* (... zenbakidun zehapen-prozedura) egindako salaketak ekarri zuen zehapen-prozedura artxiba dezala eta zehapenaren zioz ordaindutako zenbatekoa itzul diezaiola interesdunari.